


ezagutzen al  
duzu Donostia?

# Txanponene




Txanponene baserria Amara Goian.

Baserri hau Txanponene izenarekin Lorenzo Alzate Donostia hiriko idazkariak 1862. urtean egindako erre-gistroan agertzen da. Zerren-da horretan etxe horrek Amara auzoko zenbakia zeukan. Dena den, Txanpuene izenez ere ezaguna da.

Txanpoene baserri polita da, txikia eta arrunta, baina polita hala ere. Bere teilatuaren gailurrean harrizko gurutze bat ageri du. Hau Gipuzkoako kostaldeko baserri askoren ezaugarria da, barnealdean zailagoa da horrelakorik aurkitzea. Txanponeneren beste berezitasun bat zera da, bere ataburuan grabatua agertzen den «Barceloneta» izena.

Gaur egun etxe hau da Amara inguruan gelditzen den etxe zahar bakarretakoa. Miraria dirudi, baina egun hor agertzen zaigu txanponene orain San Roke dei-



Txanponeneko lurak Melodi ingurutik ikusiak.

tzen den gainean, bere baratza gozoz inguratuta. Esan dezadan, bide batez, San Roke izena berria dela, izan ere, gain honi azken gerra Zibilaren ondoren Donostiako Udalak ezarri zion izen hau, bere langileentzat sortutako auzune honi. Bertan zeuden baserriak galdu egin ziren, baita beren izenak ere; hala nola, Unanue, Korreo eta Diruna. Azken hau Txanponeneren parean

zegoen, errepidearen beste aldean. Txanponenen txanpona eta parean, Dirunan, dirua: ba ote zen hemen dirurik soberan?! Ez dirudi, beti baserri pobreak eta arruntak izan baitira hauek. Ez, aitzitik, inguru horretan dagoen Arbaizenea jauregia eta finka, lehen eta gaur ere Alba-ko dukeen jabegoa dena.

TESTUA ETA ARGAZKIA: JOSU TELLABIDE

La Casa  
del Café

- Juan Iriondo S.A. -  
DONOSTIA

